

Oinarrizko Datuen Dokumentua

Helburua

Dokumentu honek inbertsio-produktu honi buruz jakin behar duzun oinarrizko informazioa emango dizu. Ez da material komertziala. Produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta izan ditzakeen irabaziak eta galerak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin alderatzen laguntzeko legez eskatutako informazioa da.

Produktua

Produktuaren izena: Kutxabank errenta-asegurua

Adineko aseguratutako batentzat: 55

Entitate Aseguratzaila: Kutxabank Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U., IFK: A48272363 eta egoitza soziala: Euskadi plaza, 5 - 28. solairua - 48009 Bilbo, Bizkaia. Informazio gehiago lortzeko, deitu 94 401 83 30 telefonora.

Agintaritza eskuduna: Produktu hau Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (APFZN) ikuskatzen du.

Produktzio-data edo azken berrikuspenaren data: 01/04/2026

Zer da produktu hau?

Mota

Produktu hau Biziarteko Errentako Bizi Aseguru Indibiduala da, kapital aseguratuekin heriotza gertatuz gero, eta prima bakarrarekin kontratatzeko modukoa.

Epea

Produktu honek ez du muga-egunik, biziarteko izaera du.

Helburuak

Produktu honen helburua Aseguratuari biziarteko errenta periodikoa bermatzea da eta,aldi berean, Onuradunei Aseguratuaren heriotzagatik prestazio bat bermatzea. Produktuarekin espero den errentagarritasuna eta jaso beharreko errenta gordinaren zenbatekoa kontratazioa egiten den unean ezarriko dira eta aldaketarik gabe iraungo dute finantza-merkatuen gorabeherak kontuan izan gabe.

Produktuaren xede den txikizkako inbertitzailea

Produktua aukera ona da, likidezia izanik, beste diru-sarrera batzuk osatuko dituen zenbateko bermatu bat aldiro-aldiro jasotzea bermatu nahi duten pertsonentzat. Produktu hau inbertsioa bizitza osorako mantentzeko prest dauden inbertitzaileentzako pentsatuta dago. Horregatik, ez zaie gomendatzen kapitala bat-batean eskuratu nahi duten inbertitzaileei.

Aseguru-prestazioak eta kostuak

Produktu honek bi prestazio-mota bermatzen ditu:

- Zenbateko finkoko errenta periodikoen ordainketa pertsona Aseguratu bizi den bitartean. Kasu horretan, hiltzean iraungiko litzateke errenta.
- Aseguratu hiltzean, egindako ekarpenaren berdina izango den heriotza-kapitalaren ordainketa egingo zaie haren Onuradunei, hau da, prima bakarraren ordainketa.

Produktu honek erabateko erreskate aurreratuaren aukera eskaintzen dio Aseguratuari kontratuaren indarraldiko edozein unetan. Ez dago erreskate partzialaren aukerarik. Erreskatearen balioa erreskatea eskatzen den egunean lortutako honako hiru zenbateko hauetan txikiena izango da:

- Hornidura matematikoa ken desinbertsio-kostua, desinbertsio-kostua positiboa bada, edo, bestela, hornidura matematiko osoa.
- Dagozkion inbertsioak egiteko balioa.
- Heriotza-kapitala.

Desinbertsio-kostua bi hauen arteko diferentzia izango da: batetik, etorkizuneko prestazio aseguratuen balioa erreskatea eskatzen den egunean, hasierako erreferentzia-tasaren arabera eguneratze finantzario-aktuariala kontuan izanik, eta, bestetik, balio bera, amaierako erreferentzia-tasaren arabera eguneratze finantzario-aktuariala kontuan izanik (EURIBOR 30 urtera + % 0,60). Egungo balioa kalkulatzeko, aipatutako tasak erabiliko dira kontratazio-unean muga-eguntzat ezartzen den egunera bitartean eta, ordutik aurrera, kontratuan xede horretarako ezarritako interes-tasa erabiliko da eguneratze-tasa gisa.

Errenta-prestazioak eta heriotza-kapitala bermatuta daude aseguru-poliza Aseguratu hil arte mantentzen bada. Hala ere, **Aseguratuak erreskate aurreratuaren eskubidea erabiltzen bada, inbertitutakoa baino zenbateko txikiagoa jaso lezake erreskate-balioa finantza-merkatuen portaerari lotuta dagoelako.**

Dokumentu honetako kalkuletarako, Aseguratuaren bizi-itxaropena ken zure adina, hau da, ken 38 urte hartzen da, batez bete, gomendatutako mantentze-aldizat.

55 urteko Aseguratu baten eta 10.000 €ko inbertsio edo prima bakarraren kasuan, heriotza-estalduraren prima 0 €koa izango da eta inbertsioaren errentagarritasunaren gaineko inpaktua % 0koa izango da gomendatutako aldiaren amaieran.

Ekizleak alde bakarretik deusezta dezake kontratua Aseguru Eskabidea betetzeko orduan arriskuaren kalkuluan eragiten duen errezeloren bat edo zehaztasunik eza sortzen bada.

Zer arrisku ditut eta zer lor nezake trukean?

Arrisku Adierazle
Laburtua (AAL)



Arrisku-adierazle laburtuak esan nahi du produktuarekin jarraituko duzula hiltzen zaren arte. Benetako arriskua asko alda daiteke irteera aurreratua eginez gero eta, horren ondorioz, baliteke diru gutxiago berreskuratzea.

- Arrisku-adierazle laburtua produktu honek beste batzuekin alderatuta duen arrisku-mailari buruzko gida da. Produktuak, merkatuen eboluzioagatik edo ezin dizugulako ordaindu, dirua galtzeko dituen posibilitateak erakusten ditu.
- Produktu honi 1 arrisku-maila eman diogu 7ko eskalan. 1 horrek arrisku txikiena esan nahi du.
- Ebaluazio horrek oso txikia gisa jo du etorkizuneko errentagarritasunetan galerak izateko posibilitatea eta oso inprobablea gisa merkatuaren koituntura txar batek Kutxabank Vida y Pensionesek zuri ordaintzeko ahalmenean eragiteko probabilitatea.
- Produktu honek ez du babesik merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren aurka eta, horregatik, zure inbertsioaren zati bat edo inbertsio osoa gal zenezake.
- Zor zaizuna ezin badizugu ordaindu, inbertsio guztia gal zenezake (ikus atal hau: Zer gertatzen da Kutxabank Vida y Pensionesek ezin badu ordaindu?).

Errentagarritasun-egoerak

Aurkeztutako zenbatekoek barne hartzen dituzte produktu beraren kostu guztiak. Zenbatekoek ez dute kontuan hartzen zure egoera fiskala, jasotzen duzun zenbatekoan eragina izan badezake ere.

Produktu honetatik lortzen duzuna merkatuaren etorkizuneko bilakaeraren arabera izango da; bilakaera hori zalantzazkoa da, eta ezin da zehaztasunez iragarri.

Erakusten diren agertokiak iraganeko emaitzetan eta hipotesi jakin batzuetan oinarritutako irudikapenak dira. Merkatuek oso bilakaera desberdina izan dezakete etorkizunean.

Gomendatutako mantentze-aldia: Biziartekoa

Inbertsioa / Aseguru-prima: **10.000 EUR**

Biziraupen-egoerak

		Irteera urtebete igaro ondoren egiten bada	Irteera 19 urte igaro ondoren egiten bada	Irteera gomendatutako mantentze-aldiaren ondoren egiten bada
Gutxienekoa	Zure inbertsioaren zati bat edo osoa gal zenezake			
Tentsio	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	3.360 EUR	4.927 EUR	19.472 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-67,3%	-6,4%	2,5%
Txarra	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	6.434 EUR	4.927 EUR	19.472 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-36,1%	-6,4%	2,5%
Moderatua	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	7.647 EUR	4.970 EUR	19.472 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-23,8%	-6,3%	2,5%
Ona	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	8.744 EUR	5.315 EUR	19.472 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	-12,7%	-5,4%	2,5%
Prestazioen egoerak – Kontingentzia aseguratuak				
Biziarteko Errentak	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	255 EUR	4.845 EUR	9.690 EUR
Heriotza-kapitala	Kostuak kenduta zure Onuradunek jaso dezaketena	10.000 EUR	10.000 EUR	10.000 EUR

Taula honek erakusten du aseguru-kontratuak irauten duen bitartean jaso zenezakeen dirua, bizi-itxaropenaren arabera eta egoera desberdinen arabera kalkulatuta, 10.000 € inbertitzen dituzula kontuan hartuta

Aurkeztutako egoerek zure inbertsioak izan lezakeen errentagarritasuna adierazten dute. Beste produktu batzuen egoerekin aldera ditzakezu. Biziraupen-egoeretan honela kalkulatu da biziarteko errentaren errentagarritasuna: (i) eurotan (bezeroak jaso dezakeena), kontuan hartutako aldiaren amaiera arte ordaindutako errentei gastuak kendutako erreskate-balioaren kalkulaturako zenbatekoa, kontuan hartutako iraupen bakoitzari legokiokeena; (ii) ehunekotan (urte bakoitzeko batez besteko errendimendua), kontuan hartutako aldiaren amaiera arteko errenten zenbatekoa, eta kontuan hartutako aldi bakoitzari legokiokeen gastuak kendutako erreskate-balioaren zenbatekoa kontuan hartuta.

Tentsio-egoerak merkatuen muturreko baldintzetan jaso zenezakeena erakusten du.

Zer gertatzen da Kutxabank Vida y Pensionesek ezin badu ordaindu?

Txikizkako inbertitzaileak finantza-galerak izan ditzake Kutxabank Vida y Pensionesek ez ordaintzeagatik eta ez dago kasu horretan txikizkako inbertitzailea babesten duen konpentsazio- edo berme-erregimenik. Aurrekoa alde batera utzita, Kutxabank Vida y Pensionesek araudi zorrotza bete behar du ikuskapen- eta kaudimen-arloan, aseguru-entitatek ez ordaintzeko probabilitatea oso txikia izatea helburutzat duena. Kutxabank Vida y Pensionesek araudi horretan ezarritako kaudimen-eskakizunak betetzen ditu. Halaber, Espainiako beste entitate publiko batek, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoa izenekoak, aseguru-kontratuaren hartzekodunak babesteko funtzioa du hura likidatzen bada edo hartzekodunen konkurtsoan sartzen bada. Horri buruzko informazio gehiago lor dezakezu www.consorseguos.es helbidean.

Zein dira kostuak?

Kostuak denboran zehar.

Kostu-mota desberdinak estaltzeko inbertsioetik kentzen diren zenbatekoak erakusten dituzte taulek. Inbertitutakoaren arabera dira zenbateko horiek, produktuak zenbat denboran mantentzen dituzun kontuan hartuta. Hemen adierazitako zenbatekoek erakusten dute zenbateko jakin batek inbertsio-epe posible desberdinetan egindako inbertsioaren adibide bat.

Honako kasu hauetatik abiatu gara:

- Inbertitutako zenbatekoa berreskuratuko zenuke lehen urtean (urteko etekina %0koa). Gainerako mantentze-aldiei dagokienez, produktuak agertoki moderatuan erakusten den bezala eboluzionatzea aurreikusi dugu.
- 10.000 EUR inbertitzen dira.

	Irteera urtebete igaro ondoren egiten bada	Irteera 19 urte igaro ondoren egiten bada	Irteera gomendatutako mantentze-aldiaren ondoren egiten bada
Kostu osoak	200 EUR	200 EUR	200 EUR
Kostuen urteko intzidentzia (*)	2,1%	0,4%	0,1%

(*) Mantentze-aldian zehar kostuek urtero beren errendimendua nola murrizten duten islatzen du. Adibidez, irteera eginez gero gomendatutako mantentze-aldia amaitu ondoren, urtero lortzea aurreikusten den batez besteko errendimendua %2,6 izango da kostuak kendu aurretik, eta %2,5 kostuak kendu ondoren.

Kostuen osaera

Ondorengo taulak honako hauek adierazten ditu:

- Kostu-mota desberdinek gomendatutako mantentze-aldiaren amaieran inbertsioaren errendimenduan izan dezaketen inpaktua, urte bakoitzari dagokiona.
- Kostu-kategoria desberdinen esanahia.

Sarrerako edo irteerako kostu bakarrak	Kostuen urteko intzidentzia, irteera gomendatutako mantentze-aldiaren ondoren egiten bada	
Sarrerako kostuak	Inbertsio hau egitean ordainduko duzun zenbatekoaren 0,1%.	0,1%
Irteerako kostuak	Irteerako kostuak "Ez da aplikagarria" gisa adierazten dira hurrengo zutabean, ez baitira aplikatzen produktua gomendatutako mantentze-aldiaren amaierara arte mantentzen bada.	Ez da aplikagarria
Urtero kendutako kostu korrontek		
Kudeaketa-komisioak eta beste administrazio- edo funtzionamendu-kostu batzuk	Azken urteko kostu errealetan oinarritutako estimazioa da.	Ez da aplikagarria
Eragiketa-kostuak	Zure inbertsioaren balioaren 0% urtean. Produktuaren azpiko inbertsioak erostean eta saltzean sortzen ditugun kostuen estimazio bat da. Zenbateko erreala kontsumitu eta saltzen dugun kopuruaren arabera izango da.	Ez da aplikagarria
Baldintza espezifikoetan kendutako kostu osagarriak		
Errendimendu-komisioak	Ez zaio inolako errendimendu-komisiorik aplikatzen produktu honi.	Ez da aplikagarria

Zenbat denboran mantendu behar dut inbertsioa eta atera al dezaket dirua aurrerapenez?

Gomendatutako mantentze-aldia: Aseguratua hil arte.

Errenta-produktu honen ezaugarriak kontuan hartuta, aseguruia bizitza guztirako mantentzea gomendatzen da, Aseguratua hil arte. Hala ere, Aseguratuak produktuaren bizitzako edozein unetan erabili ahal izango du erreskate osorako eskubidea, Zer da produktu hau? atalean xehatu den bezala.

Nola egin dezaket erreklamazioa?

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren harremanetarako datuak:

- Kutxabank Seguros-en Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, helbidea Euskadi plaza, 5 - 28. solairua - 48009 Bilbo, Bizkaia.
- E-posta: atencion.asegurado@kutxabankseguros.es.

Beste datu interesgarri batzuk

Kontratazioaren aurretik, dokumentu honetaz gain, produktuaren alde aurretiko informazio-orria emango zaizu.

Errentagarritasun- eta kostu-egoeren tauletan aurkeztutako zenbatekoak 55 urteko Aseguratu batentzat kalkulatu dira, eta dokumentu honen eguneratze-datari dagozkion merkatuko datuekin. Kontratazioa egiteko unean, benetako baldintzak dokumentu hau egiteko erabili direnen desberdinak izan daitezke.